

# Arrasate

UPRESSU

1996ko  
Ekainak 14  
324. zenb.

## IKUSPEGIA

Matilde  
Sainz

## KULTURA

Jose Luis  
Ormaetxea

## IRITZIA

Mikel Olabe

## BERRIAK

Dena gertu  
San Juanetarako

Edertze aretoak

Itxura hobetu  
gura denean





*Ez baduzu biluzik ibili nahi...*



*...zatoz Karmeletia  
Bitxitegira eta jantzi  
zaitez dotore.*

Iturriotz, 33 • ARRASATE  
Tfnoa: 77 07 41



**Freska ezazu zure euskara!**



## **Arrasateko Udal Euskaltegia**

(16 urtetik gorakoentzat)  
Ekainaren 27tik uztailaren 24ra arte  
5 ordu goizez  
Maila guztiak

**Matrikulaldia:** Ekainaren 1etik 18ra arte

**Prezioa:** 6.700 pezeta  
**Materialea:** 1.500 pezeta  
2.500 pezeta 9, 10, 11, 12 urratsekoek eta  
Alfabetatze 2koek  
**BEKA SISTEMA** daukagu

Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Telefonoak: 79 70 77 • 79 77 88 • ARRASATE



ARRASATEKO UDALA

Udal Euskaltegia ■



# Emigrazioei buruz zenbait zertzelada

**C**ain eta Abelen mitoan nomada eta sedentarioen arteko gatazka ikus daiteke. Abel artzaina zen eta Cain nekazaria. Biek lur sail bera nahi zuten baina erabileran desberdinetarako. Gatazka hau nola bukatu zen denok dakigu: sedentarioak nomada hil zuen baina ekintza honekin sedentarioa nomada bihurtu zen betirako: "...noraezan ibiliko haiz munduan" esan zion Jaungoikoak eta berak erantzun "Astunegia duk zigor hau eraman ahal izateko... eta noraezan munduan ibili behar dut...".

Gizateriaren historiari parabola honen antza duela dio Enzensberger-ek. Historia irakurtzea baino ez daukagu ohikoa izan dena ikusteko: konkistak, erbesteratzeak, esklaboen salerosketa, kolonizazioak, eta abar.

Gizateria, arrazoi anitzak direla medio, borondatezko edo derrigorrezko mugimenduan egon da eta dago. Honen adibide garbiak ditugu aspalditik eta etengabe ematen diren emigrazio jendetsuak, Mexicotik Estatu Batuetara eta Afrikatik Espainiara, besteak beste. Adibide hauei gehitu behar zaie, nahi baino sarriago ematen diren beste zenbait, bosniarren kasua, edo orain dela aste batzuk Liberiari irten zen itsasontziarena: hor ibili zen errefuxiatu liberiarrez gainezka noraezean inoren lurraldetara lehorrerat ezinik.

Bestalde, eta borondatezko migrazioen artean jai eta opor egunetan egiten ditugun bidaiak luzeak eta opor toki batzutan biltzen den jendetza dira nomaden senaren adibide garbia.

Emigrazioetara bueltatuz, zer gertatzen da emigrazio jendetsuak ematen direnean? Hona hemen aipatu autoreak nola irudikatzen duen emigrazioen kontestuan gertatutakoa:

Bi bidaiari treneko konpartimentu batean doaz. Ez dakigu nondik datozen, ez eta nora doazen ere. Erosoki kokatu dira konpartimentu zabalean, eroso joateko moduko tokia

baitaukate biontzat. Konpartimentua zabala izan arren dena okupatu dute: mahaitxoak, ekipaje-tokiak, esekitokiak...; jarleku libreetan sakabanatu dituzte aldizkariak, poltsak eta gainerako gauzak. Azkenean jarlekuetan eseri dira. Geroxeago konpartimentuko atea ireki eta bi bidaiari berri agertu dira. Lehenengo biek ez diete bigarrenei ongiatorria eman. Halere, gogoz kontra jaiki eta lehen okupatutako mahaitxoak, ekipaje-tokia eta esekitokia libratzen hasi dira. Finkatutako jarrerak erakusten dituzte eta beren atzetik etorri direnak kanpotar direla sentiarazten dituzte. Baina jakina, badira trenean bete beharreko lege batzuk: trenbide-tako agentziak jarritakoak eta hauez gain hor daude gizalegezko arauak ere. Azkenean onartu egingo dituzte bidaiari berriak treneko konpartimentuan. Baina bigarren hauek aurrekoek beraiekin izan duten jarrera bera izango dute atzetik datozenekin.

Zer nolako jarrerak ikusten dira jarritako adibidean? Hasteko, treneko konpartimentua ez da betirakoa, behin-behineko erabilpen-rako baizik. Bestalde, bidaiaria, bidaiatzen ari den heinean sedentarioaren ezeztapena da. Halere, lehenbiziko bi bidaiariek lurraldetasuna (konpartimentua) defendatzen dute beren atzetik etorri direnen aurrean.

Ez dugu ahaztu behar gure herriak emigrazioa ezagutu duela, denok dakigu mende honen erdi aldera Euskal Herrira gaur egun bertakoak diren hainbat emigratzaile etorri zela eta datozen urteetarako ere emigrazioen aurrean gertu egon behar dugula.

Orain arte fenomeno honen aurrean izan ditugun jarrerak eta soluziobideak aztertzea komeniko litzaziguke, eta, aurrera begira, emigrazioen aurrean nola jokatu jakiteko jarrerak lantzen joatea ongi legokela deritzot.

**MATILDE SAINZ OSINAGA**

**MICROS'S**  
Informatika

Osagarri eta memorian  
eskaintza bereziak!

J. Luis Iñarra, 20  
Tfnoa: 79 81 30 / (908) 14 33 62  
ARRASATE

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

**Memesa**  
79 42 22




**ARRASATEKO UDALA**

Aldizkari honek Arrasateko  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura  
Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

**Laguntzaileak:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Iberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Josu Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopl, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubizarreta, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rala mungia, Mario Egües, Rufina Ollasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).




ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.  
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana

## CARMEN

### Ileapaindegia

Ferrerias, 50  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 03 63




Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

## OSORIK

### PUB

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

## URRATS

### AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

## Bukaerara iritsitakoan hainbat balorazio

**A**urten ere Nesken Futbito Txapelketa amaiera heldu zaigu, eta lerro hauek idazteko ordua dela uste dugu.

Txapelketa honetako balorapena egiteko momentua iritsi eta ona dela esaten dugu, eta bai halaxe da, baina badirudi bukaeran ahaztu ditugula orain arte izandako arazo guztiak. Baina ez pentsa horrela denik, ezin ditugu ahaztu batez ere arbitraiarekin egondako istiluak eta egin ditugun bestelako hainbat eta hainbat hankasartze, baina horrela ikasten omen da eta datorren urtera begira, gauzak hobeto egi-  
tea espero dugu.

Bestalde, ezin dugu esan

txapelketa kanpora begira oso arrakastatsua izan denik eta aipatu beharra dago horretarako herriko komunikabideek (batzuk behintzat) asko ere ez digutela lagundu; aurten Arrasate Press-en neskentzat leku askorik ez da egon eta ATB-ko kamarek ere gurekin lan handirik ere ez dute hartu.

Baina hala ere, jende askoren laguntza jaso dugu eta beraiengatik ez balitz aurtengo txapelketa ezin izango genukeen burutu.

Horregatik eskerrak eman nahi dizkiegu, nola ez partehartzaile guztiei, aurten zortzi talde ibili baikara zapaturo "gure indarrak neurtzen" eta hori bai, ahalik eta hobetuen pasatzen. Eskerrak eman ere Arrasate Kirolak, Biona eta Kajoi tabernei eurei esker eman ahal izan baititugu aurten ere sariak. San Viator txi-

kikoei ere eskerrik asko, aste guzti hauetan ibili bait gara eurek utzitako kanpoan jokatzen. Azkenik Zaldibar Txapelketako antolatzaileei ere eskerrak eman behar dizkiegu, zenbait partidutan arbitro lanetan ibiltzeagatik eta Arrasate Irratira astero gure emaitzak eramateagatik.

Bukatzeke jendea animatu nahi dugu, ea datorren urtean talde gehiago elkartzen garen. Txapelketa honetan partehartzea esperientzia oso polita da, giro ezin hobean jendea ezagutu eta kirola egiteko aukera ematen digu eta.

Besterik gabe eta berriz ere eskerrak emanez, datorren urtera arte.

Aupa neskek!

**LEIRE URRETZO**  
**(NESKEN FUTBITO TXAPEL-  
KETAKO ANTOLATZAILEA)**

## Erredakzioaren erantzuna

Nesken futbito txapelketako antolatzaileek idatzitako eskutitzari erantzun bat emateko beharra ikusi dugu ARKOn. Izan ere, aurten ez zaiela jarraipenik egin diote, ez aldizkarian ezta telebistan. Batetik argi utzi nahi dugu Arrasateko kirol guztiei tratamendu bera egitea ezinezkoa zaigula orrialdeekin muga dugulako; bestetik, nesken txapelketari ezer kentzeke, ukazina da 1.500 lagunetik gora mugitzen duen herri ekimen batek edozein ikuspegi informatibotik, 8 taldek osatutako txapelketa batek baino interes handiagoa duela. Berdin zaigu gizonak edo emakumeak izan. Uste dugu ARKOn ez dela inoiz sexu diskriminaziorik egin bestela Mondrako emakume taldeari, gimnasia eritmiko taldeari... begiratzea baino ez dago. Bestalde informazio jasotzeko orduan ere, arazo bat baino gehiago izan dugula esan behar eta guk deitu gabe gutxitan, sekula ez esateagatik, zuzendu dira antolatzaileak gure informazioa ematera.

## Zuzenketa

Joan den asteko aldizkarian, hirugarren orrialdeko Jose Mari Astigarragaren kolaborazioan, lerro bat jan genuen ordenagailura pasatzerakoan, bigarren parrafoari zentzua aldatuz. Zuzena hauxe da: "... Espainiaren defentsan eta ize-  
nean dena justifikatu: terrorista horiei leña, kartzela, justizia, heriotza, Euskalerrriaren defentsan eta ize-  
nean dena justifikatu: terrorista horiei leña, kartzela, justizia, heriotza..."

## TXOKO

### TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

## UGARTE

Industri  
hornidurak


Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
Telefax: 793412

# Uda datorrela eta zaintzen duzu zure gorputza?



**Gloria Gonzalez**  
(32 urte)  
Langilea

Inoiz ez dut ezer berezirik egin uda datorrelako, eta ez naiz estetika zentruetara joaten.



**Jose Abad**  
(30 urte)  
Langilea

Gorputza zaintzen dut baina ez dut gauza berezirik eginen. Kirola egiten dut, baina urte guztian zehar.




**Pilar Larrea**  
(40 urte)  
Langilea

Ez dut ezer apartekorik eginen. Crema ematen dut azalean eguzkia hartzeko baina hori bakarrik.



**Jose Francisco Zabala**  
(48 urte)  
Langilea

Normalean kirola egiten dut baina urte guztian. Formari eusteko egiten dut kirola.



**Petra Mari Inda**  
(51 urte)  
Etxekoandrea

Uda datorrelako ez dut aparteko gauzarik eginen. Hori bai gutxi afaltzen dut. Lehenengotan zaintzearen hasi nintzen gutxi afaltzen, eta orain, ohituragatik.




**David Merino**  
(16 urte)  
Ikaslea

Uda heltzen denean gimnasiaora joaten naiz, baina kirola egiteko asmoz.



**Vicenta Fernandez**  
(70 urte)  
Etxekoandrea

Zaindu? Ez. Oinez joaten naiz egunero Aretxabaletara baina horrez gain ez dut ezer berezirik eginen.



**Jose Mari Isasmendi**  
(35 urte)  
Langilea

Ez dut ezer berezirik eginen. Kirola bai, baina urte guztian.

## Jesus J. Giraldo

### Liseriketa aparatua

• Lagun-Aro • PREVIASA • Foru Aldundia • Partikularrak

Astlehenetik ostiralera arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

Loramendi kalea, 6 Eguzki dorrea, 2.B Tfnoa: 79 04 14 ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Iguualatorria .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze Gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria .....77 03 46  
 • Espezialitateak .....77 05 78  
 77 12 64  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantziak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....088

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasak .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**Irratia**  
 Arrasate Irratia .....79 58 77

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 14**

Gaueko 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías. Egunez eta gauez: Puy, Bergara.

**Larunbata 15**

Gaueko 10ak arte: Español, Iturriotz. Egunez eta gauez: Puy, Bergara.

**Igandea 16**

Egunez eta gauez: Corcuera, Musakola.

**Astelehena 17**

Egunez eta gauez: Irizar, Erguin.

**Asteartea 18**

Egunez eta gauez: Amezuza, Santamaina.

**Asteazkena 19**

Egunez eta gauez: Ruiz, Maala.

**Osteguna 20**

Egunez eta gauez: Morales, San Andres.

**14 OSTIRALA**

• **ZINEA**  
 "Alma gitana" 7etan eta 10etan.

• **ARRASATEKO TOPONIMIA LIBURUAREN AURKEZ-PENA**

Jose Luis Ormaetxea, Txipiren liburuaren aurkezpena Udaletxean eguerdiko 12.30etan.

• **GIMNASIA ERRITMIKAKO ERAKUSKETA**

Aretxabaletako Kurtzebarri eskolak eta Erguin eskolak gimnasia erritmikako erakusketa egingo dute Erguingo herri eskolan arratsaldeko 6etan.

• **METAL KONTZERTUA**

Metal kontzertua Arrasate musikaleko areto nagusian arratsaldeko 6etan.

• **EAJ-PNVren HITZALDIA**

Gaiak: PP eta EAJren arteko paktoa eta GALauziaren ikerketa. Hizlaria: Joxe Juan Gonzalez de Txabarri. Batzokiko hitzaldi aretoan arratsaldeko 7etan. Hitzaldia- ren ostean, afaria izango da. Arrasateko EAJk antolatuta.

**ELKARRIREN MANIFESTAZIOAK AUTOBUSAK**

**Ekainaren 22an Bilbon "Hitz hutsak baino gehiago... Euskal Herrian bidezko bake-prozesu baterako" lemapeko manifestazioa egingo dela eta, Arrasateko Elkarri autobus zerbitzua antolatu du. Izenematea Hire liburudendan edo 79 41 15 telefonora deituz egin daiteke. Autobusa Garibaitik irtengo da arratsaldeko 4etan eta manifestazioa 5.30etan hasiko Bilboko La Casillan.**

**15 LARUNBATA**

• **ZINEA**  
 "Una jaula de grillos" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **IV. KIROL JAIA**  
 IV. Kiroljaia Iturripeko kiroldegian goizeko 10etatik 12.15etara. Era guztietako kirolak egiteko aukera izango dute partehartzaileek. Jaia amaitutakoan oparien banaketa eta luntxa izango da.

• **KIROLDEGIKO OHARRA**  
 Musakolako eta Iturripeko kiroldegietako frontoiak, futbol, tenis eta Squasheko kantzak alokatzeko interesatuek bileraz izango dute goizeko 11etan Musakolako kiroldegian.

• **TXIRRINDULARI LASTERKETA**  
 Arratsaldeko 4etan txirrindulari lasterketa. Ibilbidea: Garibai, Kontzeziño, Biteri, Garibai.

• **UMEEN TANBORRADA**  
 7etan Umeen tanborrada Arrasate Musikaleko bandarekin, SUDCK antolatuta.

• **ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN**  
 Tanttakaren "Umekeriak" antzezlan eskainiko da Amaia Antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera 800 pta. eta Gazte Txartelarekin 600 pta.

• **AEKko MANIFESTAZIOA IRUÑAN**  
 "Erantzun Euskarari" lemapean AEKk manifestazioa antolatu du Iruñan. Bertara joateko Arrasateko AEKk autobusa antolatu du. Irteera arratsaldeko 4etan Garibaitik.

• **SAN BERNABE ERMITAREN INAUGURAZIOA**  
 Apozagako San Bernabe ermita inauguratuko da eguerdiko 12.30etan.

**16 IGANDEA**

• **ZINEA**  
 "Una jaula de grillos" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**  
 Ibilbidea: Arrasate, Kanpazar gaina, Durango, Zornotza, lurre, Barazar gaina, Legutio, Kurtzeta eta Arrasate, 96 kilometro guztira. Irteera goizeko 9etan Monterronen.

• **HAUR DANTZARIEN EGUNA**  
 Goizeko 10.30etan Nafarroako etorbidean dantzariak elkartuko dira. 10.45etan dantzarien desfilea. Arratsaldeko 5etan dantzari talde guztien jarduna eta agurra Herriko Plazan. 7etan Txinparta taldearekin dantzaldia Plazan. Txikitxu eta Lore Gazteak taldeek antolatuta

• **PARAPENTE ETA ALA DELTA KONTZENTRAZIOA URKULUN**  
 Goizean zehar Kurtzebarritik Urkulura ala delta eta Parapentean salto egingo dute eguraldiak laguntzen badu. Ondoren partehartzaileek luntxa izango dute Matikuan.

• **AIRE LIBREKO PINTURA LEHIAKETA**  
 Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruak aire libreko pintura lehiaketa antolatu du. Lanei ziguila jartzeko epea goizeko 9etatik 12etara egongo da zabalik eta eguerdiko 2ak baino lehen margoak aurkeztu beharko dira Monterronen.

• **ARGAZKI RALLYA**  
 Arrasate Herria argazki rallya. ASA taldeak antolatuta. Izenematea: goizeko 8.30etatik 9.30ak arte ASA argazki elkartearen lokalean.

• **ARABA EUSKARAZ**  
 Araba Euskarazera joateko autobusa goizeko 9etan irtengo da Zaldibartik. AEDk antolatuta.

**17 ASTELEHENA**

• **ZINEA**

“Una jaula de grillos” 7etan eta 9.30etan.

**18 ASTEARTEA**

• **ZINEA**

“Una jaula de grillos” 7etan eta 9.30etan.

• **ENPLEGUAREN ALDEKO MARTXA**

“Enplegua eskubideekin” martxa Arrasatek Eskoriatzara. Portaloian arratsaldeko 5.30etan. Langile Komisioak antolatuta.

Hilaren 22an, martxaren bukarera joateko, Altsasura, autobus zerbitzua egongo da, goizeko 10etan Gari-baien. Izenematea Langile Komisioen egoitzan.

**19 ASTEAZKENA**

• **SAN JUANETAKO BILERA**

San Juan jaiak prestatu eta indartzeko bilera arratsaldeko 7.30etan AEDko loka-lean.

**20 OSTEGUNA**

• **ZINE KLUBA**

“Los juncos salvajes” Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

• **LIBURUAREN AURKEZPENA**

Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzitako “Nere haurtzaroko Arrasate” liburuaren aurkezpena Monterronen arratsaldeko 7etan. Ondoren Jose M<sup>a</sup> Uranga Arregiri urrezko domina emango zaio.



**IKARUS TALDEAREN IKUSKIZUNA**

**Ala delta eta Parapente ikuskizuna izango da Urkulun domekan. Kurtzebarritik urtegira salto egingo dute parte hartzaileek. Goizean 11etatik 12.30ak arte eguraldiak laguntzen badu egongo da ikusgai Ikarus taldeak antolatutako ekintza.**

**MUSAKOLAKO IGERILEKUA**

Ekainaren 15ean Musakolako kanpoko igerilekua zabalduko da eta barrukoa itxi. Ordutegia: astelehenetik domekara arte goizeko 9.30etatik arratsaldeko 8.30ak arte.



**UMEEN TANBORRADA**

**San Juanetako umeen tanborrada egingo da zapa-tuan arratsaldeko 7etan. Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin batera umeak izango dira protagonistak. Arrasateko hainbat kale zeharkatu ondoren Herriko Plazan bukatuko da.**

**MARGO ERASKUSKETA**

Arrasateko Margo taldearen pintura erakusketa Harresi aretoan ekainaren 14tik uztailaren 7a arte. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara. Larunbata eta jaiegunetan 12 etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

**SAIO BEREZIA ARRASATE IRRATIAN**

**K.G. B. musika saioak azken emanaldia izango da ekainaren 21an. Egun horretarako saio berezia antolatu dute eta irratsaioan parte hartzen dutenen artean era guztietako sariak banatuko dituzte.**

**ERAKUSKETA MONTERRONEN**

Aire libreko pintura lehiaketan parte hartu duten margoekin erakusketa egingo da Monterronen ekainaren 16tik 22ra. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbata eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8ak arte.

“Arau orokor moduan, MCCk jarrera aktiboa hartu behar du, internazionalizazio prozesu honen alde lanean hasi beharra dugu, jarrerak mugiarazi behar ditugu, negozioak, aukerak aprobetxatu eta eragozpenak gainditu aurrea hartzeko helburuaz eta gauzatzeko sistema egokiak sortuz. Antolamenduan eman den aldaketa, sektorizazio irizpidea aplikatuz, prozesuaren aldekoa da, baina lehen urratsa besterik ez. Elkartearen sorrerak kooperatibei dimentsio eta garrantzia handiagoa ematen die. 2.000. urterako atzerrian 30 lantegi izateko helburua jarrita dugu, eta erosketen kopurua laukoiztea. Joera hau hazi egin behar da etorkizunean, indar handiagoz. Erronka horri erantzuteak antolamendurako proiektu berriak eskatzen ditu, askotan, korporazio izaera bera ere ez da nahikoa izango eta. Errealitate berrira egokitzeko borondatea eta irudimena izan behar dugu”.

**Jesus M. Herrasti**, 1996ko maiatza.

**TU lankide**

“Eusko Jaurilaritza eta MCCren arteko elkarlan hitzarmena ere aipatu zuen Antonio Cancelok. Garapen industrialera-ko proiektuak bultzatuko ditu itun honek, hiru mila lanpostu sortuko dituenak -horietatik 1.600 Euskal Autonomia Elkarte-ko, 80.000 mila pezetako inbertsioak eginez. MCC finantza merkatuetara plazaratzeko asmorik ere bada, baina epe luzerako proiektua omen, presarik gabe burutzekoa, inbertsoreei ahalik eta garrantzia gehien eskaintzearen. Hortxe dira, baita ere, Elkargi eta Ikusirekin izenpetutako akordioak. Lehenbizikoa, finantziario iturri berriak lortzeko sinatua. Bigarrena, elektronika eta telekomunikazio alorra sendatzeko asmoz adostua.

Laburpen gisara: “Hobe genuke Euskal Herriko ekonomia kooperatiba elkartearen arrastotik balebil bai inbertsiontan, bai enpleguan bai emaitzetan”, horixe izan zen maiatzaren 29an Arrasaten bildu ziren kazetari eta enpresariak aho batez aipatu zutena. Zerbakiak behintzat, hotz hotzean begiratura, horrela dioskute, balegokeela ekonomian eredu eraginkorrik etxetik urruti jo gabe ere”.

1996ko ekainak 9.

**ARGIA**

## Zein da Denondako Kirol Jaiaren helburua?


**E**dadetuen eta umeen kirol jaiak egin ondoren, astebukaera honetan elbarrituendako kirol jaiak ospatuko dugu Arrasaten. Aurtengoa laugarren edizioa izango da, eta oraingoan Mankomunitateko kirol zerbitzua ibili da antolatzaile lanetan.

“Denondako” deitzen den jai elbarritu fisiko eta psikikoei zuzenduta dago. Helburua, berriz, egun atsegingarri bat pasatuz lagun horiek kirola egitera bultzatzea da. Jai larunbatean egingo da

Iturripeko Kiroldegian, eta hara hurbiltzen diren elbarrituek bereziki euren dako pentsatuta dauden kirol batzuetan eta beste joku arrunt batzuetan parte hartzeko aukera izango dute. Integrazioa bultzatu asmoz, gainera, gazte talde bat hurbilduko da kiroldegira elbarrituekin parte hartzeko.

Iaz Deba Garaiko 75 lagun izan ziren ekintza horretan, eta aurten 100 izango direla uste dugu. Arrasatetik gutxi gorabehera 40 lagun gerturako dira. Aspacetik, Aransgitik, Gureatik, Agidonetik eta Oncetik etorriko dira elbarrituak. Gehienbat jende heldua etortzen da. Lagun horiek oso pozik etortzen dira horrelako ekintzetara, bestela euren dako gauza gutxi antolatzen da eta.

Bukatzeke animatu nahi nuke jendea zapatuan Iturripeko kiroldegira etortzera, elbarrituendako garrantzitsua izango da eta.



**Fernando Aguriondo**

*Aukeako*

*Kirol Teknikaria*

**HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK,  
3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA**

**Errentagarritasun bermatua 3 urtetan**

**% 25**

**Errentagarritasun bermatua 5 urtetan**

**% 48**

**BANKINTER**

**A G E N T E A**

Lor itzatzu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute erretentziorik eta Inbertsio Fondoetara-ko gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukerari-ko batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorri aprobetxa dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

MIKEL LASA Aseguru Artekarria, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxa: 77 10 74



**Roneo bota  
Hiper-a eraikitzeko**

Joan den ostiralean Roneo botatzen hasi, eta astean lantegia guztiz desagertu da. Eskabadorak aritu dira 1964. urteko eraikina botatzen. Ostiralean, gainera, ondorio txarrik izan ez zuten istripua gertatu zen sabaiaren zati bat lanean ari zen kamioi baten gainera erori zenean.

Hiper Eroski eraikiko dute orube horretan.

**Izaskun Murgiaren omenaldia bikain**

Iaz hil eta Arrasate Musikaleko irakaslea zen Izaskun Murgiari omenaldia egin zioten joan den zapatuan. Arrasate Musikalek eta Goikobaluk parte hartu zuten kontzertuan eta nahiko jende hurbildu zen. Bertan izan zirenen arabera, denak ondo aritu arren batez ere bakarka aritu ziren musikari eta abeslariak nabarmendu ziren.

**Txapela Ondarrura**

Leire Bilbaok irabazi zuen Arrasaten jokatu zen VIII. Eskolarteko Bertsolari



**Gose greba Donostian**

Ekainaren 2tik 8ra gose greba egin zuten Deba Garai-ko 15 lagunek Donostiako Artzain Onaren katedralean. Sakabanaketarekin bukatu eta presoak Euskal Herrira ekar ditzatela eskatzeko egin zuten baraualdia. Horrez gain, presoek eskubideak betetzea aldarrikatu zuten. Aurrez beste bailara batzuetako lagunek egin dute gose greba. Guztira 375 lagunek egin dute baraualdia orain arte.

Txapelketa. Kartzelako saioan bertso bikaina bota ostean eskuratu zuen lehen postua. Eguraldi ona lagun Monterronen egin zen txapelketa, eta jende asko gerturatu zen gazteen bertsoak entzuzera.

Aipatzekoa, gainera, finalean parte hartu zuten zortzi bertsolarietatik sei neskak izan zirela. 14 urtetik beherakoetan Amets

Arzallusek eskuratu zuen lehen saria.

**Enrike Pagoagaren errekurtoa baztertu**

Gobernuak Belgikatik kanporatu nahi zuela eta, horren kontrako errekurtoa jarri zuen Enrike Pagoaga arrasatearrak. Ostiralean Belgikako Estatutu Kontseiluak errekurtoa bazterteza

erabaki zuen. Arrasateko alkatea eta Jose Luis Etxeberria, "Porru" ostiralean Bruselara joan ziren, epaiketa gertutik jarraitzera. Kanporatzea eragotzi asmoz, orain babes politikoa eskatu du Pagoagak.

**Joxe Mari Pagoaga espetxeratu**

Baldintzarik gabeko espetxeratzea agindu zuen epaileak asteartean Joxe Mari Pagoagarendako. Ostiralean Baionako katedralean atxilotu eta larunbatean Espainiako Poliziaren esku utzi ondoren, hartu du erabakia epaileak.

**JAIOTZAK**

- Ander Ceciaga Belategi. Maiatzaren 28an.
- Asier Sanchez Sanchez. 31n.
- Leire Abarrategi Martinez. Ekainaren 2an.
- Ane Murillo Caballero. 7an.

**EZKONTZAK**

- Francisco Javier Barcala Pescador eta Maria Cristina Bragado Marin. Ekainaren 1ean. Elizatik.
- Juan Aranburu Agirre eta Susana Arnaiz Varela. 8an. Elizatik.



*Kalitate gorena leihuetan.*


**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

a s e s o r i a  
**ARRASATE**

Orain, Erdiko kalean gaude!

Erdiko kalea, 32 - 1. I  
Tfnoa: 79 01 47  
ARRASATE



\* Mikel Olabe

## Otsoa dator!

**O**tsoa, basoko fauna eta etxeko animalien harraparria 1984ean euskal mendikateetan berragertzen da. Estatu espainiarrean 2.000 iberiar otso aurkitzen dira. Hauek europear otsoaren azpiespezieak dira eta penintsulan, Gaztelan, Galizian, Burgosen, Zamoran, Leonen... aurki daitezke. Baliteke animalia sinbolikoaren itzulera Burgos eta Kantabriako mendietatik gertu izana. Badirudi otsoak badaudela Araban, Bizkaian (Enkarterriak) eta Nafarroan (Aralar eta Urbasan). Otsoaren presentziak ez ditu beti sentimendu berdinak piztu.

Duela urte asko otsoen tribuak bere bazka, belarjale multzo handietan aurkitzen zuten. Gizakien tribua ere, hain ugariak ziren animalia hauekin elikatzen zen. Gizakia animalia hauetaz jabetzen hasi zen, baita lurrez, zuhaitzez, zein mendiez. Jabetzaren gaitxoak pentsatu arazi baitzion guztia bereganatu zezakeela. Ahaztu egin zitzaion tribu guztiak, bata bestearen menpe zeudela, baina batek beste menperatu gabe. Otsoak, gizakiak bere jabetza direla dioen animaliak erasotzen hasten dira. Hemen hasiko dira gizakia eta otsoaren artean maitasun-gorrotu erlazioak. Animalia gizakiari hurbiltzen

hasten zaio bere jabetzaren zati bat jan asmoz, kontaktua ekitzen badu ere.

Euskal Herrian otsoaren azken agerraldiak, eztabaida sortzen du. Alde batetik interes antropozentrikoak bakarrik kontutan hartzen dituen gizartearen eskutik, non abeltzantza eta esplotazio zinegetikoa oreka ekologikoari begiratu gabe ematen dira. Eta beste aldetik, gizarte industrializatu non geroz eta leku gutxiago uzten dion ederra zein beharrezkoa den basa-bizitzari.

Hala eta guztiz ere, artzantza kontuan izan behar da. Honek, ingurugiroa hain kaltegarriak ez diren kondizioetan mantentzen lagundu baitu. Artzaiak lehen, kultura honetako sinbolo bat baldin baziren, gaur egun, gero eta harrapari, kontsumitzaile eta lurritarragoa den gizartearen naturaren bizimodura moldatuak dauden gizaki "arra-roak" dira. Mende askotan

.....

*"Gaur egungo otsoaren legezko egoera, kontraesanekotzat klasifika dezakegu"*

mantendutako, baserriko aktibitate tradizioen desagertzeak, ekologiararen orekari arazo larria dakarkio.

Gaur egungo otsoaren legezko egoera, kontraesanekotzat klasifika dezakegu. Estatu espainiarrak 1986an izenpeturiko basoko bizitzaren iraupenari buruzko Bernako itunean, otsoa babestutako espezie bezala agertzen da. Legalki basanimaliak arriskutik kanpo mantentzea halabehartzen du kontzeptu honek. Komunitate autonomoek baimentzen duten kasuetan bakarrik, otsoa ehezko espezie bezala onartzen du Espainiako legeriak. Euskal Herrian animalia hau mehatxatutako espezien katalogoan ez agertzea, oso araroa da. Honek euskal instituzioen partetik sentsibilitate eza adierazten du.

Otsoa, ugari agertzen diren espezien (basurde, orkatza, basatxakur...) harrapari naturala delako, hau da, piramide ekologikoaren oreka berriztatzen lagundu duelako, otsoak gure lurretan bizi behar duela pentsatzen dugu. Baina horretarako artzaintza eta bioezberdintasuna bateragarriak izan behar dute. Diogun hau gauzatzeko instituzio eta pertsonok, gure komunitate morala zabaldu behar dugu, gizakiarengandik eta gizakiarendako pentsaturiko gure egungo ikuskera etikoa aldatuz. Gure animaliekiko eta beraien legekiko erlazioari buruz gogoeta egitea beharrezkoa da. Etika berri honek kaltetutako abereen balorea zein otsoen erasoak dakartzan galerak ordaintzera bultzatu behar du. Baita, otsoen eremuan kokatzen den abeltzaintzari, sariak eman ere. Euskal administrazioak premiagabeok diren milioi askoko azpiegituretatik gasuak murriztea ez dirudi hain zaila denik. Dudarik gabe, Gure Planetaren eta bertan bizi garen guztion laguntzarako izango litzateke.

\* EKI

## USTEAK USTE

JALGI HADI!

**Euskara, jalgi hadi plazara! Jalgi hadi Portaloi-  
ra, koadriletara, elkartee-  
tara, txikiteora, alderdieta-  
ra. Gure eguneroko mundu  
zabal honetara. Baina, sar  
hadi, baita ere, gure  
familietan, bileretan eta,  
zergatik ez, gure enpre-  
tan, gure kooperatibetan,  
bulego eta tailerretan.**

**Sar hadi lan munduan  
egunero izaten ditugun  
komunikazioetan, bilere-  
tan, batzarretan. Planu,  
txosten eta akta edo  
agiritan. Baita bezero eta  
hornitzaileekin ditugun  
harremanetan.**

**Ez izan beldurrik,  
ausarta behar duk izan. Sar  
hadi bilera teknikoetan  
edota estatutu eta araeu-  
tan. Eta urteko gestio  
planetan.**

**Baina, horretarako gure  
laguntza beharko duk izan.**

**Gu gara beldurrez  
ibiltzen garenak. Gu  
ausartzen ez garenak,  
orain arte behintzat.  
Zerbait mugitzen ari da  
gure bailaran azken  
hilabete hauetan. Eta ez  
dugu hau esaten, hiru edo  
lau kooperatibek euskara-  
ren erabilpena indartzeko  
planak martxan jartzeko  
prest daudelako, ez.  
Laister izugarriko mugida  
ikusi eta bizi izango  
dugulako. Laister plazara-  
tuko delako enpresetan  
eta euskararen alde lan  
egingo duen elkarte berri  
bat, AED elkartearen sorturi-  
ko EUSKALAN hain zuzen.  
Laister aurkituko du  
euskarak lan munduan  
orain arte utzi ez diogun  
tokia. Laister.**

**Elkarte berri horri ongi  
etorri bero bat eman  
diezaiozun, argi egon  
beharko. Sar hadi, euskara,  
gure bailarako kooperatiba  
eta enpresa guztietan!**

JOSERRA ELORTZA

# MondraSport-MECA

## LEHIAKETA BEREZIA

*Argazkikoa zein jokalaria den eta zein futbol-zelaian dagoen badakizu, parte hartu MondraSport-MECA lehiaketa berezian eta asmatzearren kamiseta bat irabaziko duzu!*

*Eta gainera, kirolerako poltsa bat eta Ivan de la Peñak sinatutako kamiseta eta baloi bat irabazteko aukera izango duzu ekainaren bukaeran egingo den zozketa berezian.*



- jokatu izan du.
1. Ez da Arrasaten jaitoa baina urte asko daramatza bertan.
  2. Beste talde batzuren artean Mirandes eta Alaves taldeetan

*Pistak*

**Errealistak gara, eta ekainean EROSLE ONENAK fitxatu nahi ditugu.**

# MECA





Emakumeen eta gizonen artean berdintasuna bultzatzeko egingo diren ekintzak finkatu dira planean.

## Emakume Batzordea plangintza egitekotan

Emakumeendako ekintza positiboen plangintza izeneko plana egitea erabaki da Emakumearen Batzordearen eskariz. Plangintza horretan, datozen urteei begira zein ekintza egingo dituzten jasoko da. Planean zehatz-mehatz dazoen bi urtetan zer egingo den zehaztuko da, eta epe luzearako egitasmoak ere finkatuko dira.

Plana enpresa espezializatu batek egingo du, baina emakumearen egoera sozio-ekonomikoa ezagutzeko egin zen ikerketan oinarrituta. Azterketa hartan arlo desberdinetan (lan munduan, hezkuntzan, osasu-

nean...) emakumeak zein hutsune eta arazo zituen jasotzen zen, eta orain hutsune horiei erantzuten ematen hasteko pausuak eman go dira, beti ere Arrasateko errealitatea kontuan hartuta. Plana zein enpresak egin erabakitzeko, lehenengo dauden eskaintzak aztertuko dira eta gero bat aukeratu.

Ekintza positiborako planak aurrez Ermuan, Eibarren eta Donostian egin dituzte eta Emakunde ere eginga dauka beste bat baina Euskal Herri osorako. Arrasaten, emakumeen taldeek urteetan aldarrikatu dute plana egitearen beharra.

## INEM geltoki berrituan

Azkenean anbulategiaren pareko geltoki berrituan kokatuko da INEM erakundearen bulegoa, eta uztailearen bukaera alderako enplegu erakunde berriz ere Arrasatera bueltatuko dela espero da. Erabakia astelehenean hartu zen alkateak, mankomunitateko lehendakariak eta INEMeko zuzendari probintzialak bilera izan ostean.

Arrasateko Udalak mankomunitateak Arrasate Pasealekuan dituen lokalak INEMi eskaini arren, hasieran pentsatuta zegoen bezala enplegu erakundeak geltokiko eraikina aukeratu du. Geltokia zaharbertzeko proiektuan INEMek eta Udalak parte hartu dute. INEMek langileak kontratatu ditu, eta Udalak materiala erosi du.

## Bedoñako bidea konpondu

Gipuzkoako Diputazioak Bedoñara doan errepidea konpontzeko proiektua onartu du. 50 milioi kostako da bide hori konpontzea. Orain obra lehiaketa zabalduko da obra nori adjudikatu erabakitzeko.



*"Hizkuntza bat gehiago, muga bat gutxiago"*

96-97 ikasturtea

**MATRIKULA EPEA ZABALIK**

**Alemana, frantsesa, ingelesa eta gainera umeendako nobedadeak ditugu**

INFORMAZIOA

Araba Etorbidea, 4  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 01 32/79 65 54

Olakua, 14  
OÑATI  
Tfnoa: 71 60 00



ESKORIATZAKO  
MAGISTERIO ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:

**1996-97 ikasturterako aurreinskripzioepea zabalik dagoela.**

Espezialitateak:

- HAUR HEZKUNTZA
- HEZKUNTZ BEREZIA
- ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA


Informazioa: IRAKASLE ESKOLA  
Tfnoa: 71 41 57  
ESKORIATZA

# Aurtengo San Juanak inoiz baino partehartzaileagoak

“San Juanak ondo pasatzeko jaiak dira, baina Arrasate herri bizia da eta San Juanek ere horren islada izan behar dute”. Azalpenok Juan Luis Arexolaleibak, kultura zinegotziak, egin zituen jaien aurkezpena egiteko eman zen prentsurrekoan. Berba horien bidez, arrasatearrak jaietan parte hartzera gonbidatu nahi izan zituen kultura zinegotziak.

Aurkezpenean izan zen jaien egitaraua finkatzen aritu den jendea. Izan ere, orain dela hiru hilabete jaien inguruan hausnarketa egin eta antolaketan parte hartzeko deia egin zitzaizen taldeei. Arexolaleibak positiboki baloratu zuen aurtien taldeek parte hartu izana, eta horrela izaten jarraitu behar duela esan zuen. San Juanak antolatzea helburu izango duen jai batzordea eratzearen alde azaldu zen kultura zinegotzia.

Orain arte egitarauan izan diren ekintzek egitarauan tarterik izango dute, baina antolatzaileei bururatu zaiz-



Ohi moduan Laubiden zezen plaza jarriko da.

kie ideia berriak ere: Ekainaren 23an Dragoi Jana izango da Herriko Plazan, 25a txikienei zuzenduta egongo da, eta horrez gain, gune bat antolatuko da Monterronen kontzertuetarako eta beste ikuskizun batzuetarako. Bestalde, kirolek ere izango dute tarterik.

13.543.000 pezetako aurrekontua dute aurtengo San Juanek.

## Hainbat talde antolaketan

Udalaz gain, hainbat taldek erantzun du jaiak antolatzeko laguntzeko gonbiteari. Honako hauek dira parte hartu dutenak: Margo Taldea, Pilota Elkartea, Txirrindulari Elkartea, Arrasate Musikal, Musika Banda, SUDC, Famili eta Gizarte Hezketarako Zentrua, Txikitxu, Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, Futbito, AED, ASA, Arrasateko gaiteroak, Arrasateko erraldoi eta kilikiak, Zeramika Tailerra, Irratizaleak, ARKO, Trikitilariak, Orkatz, AEK, Txatxilipurdi, Ttakun, herriko rock talde desberdinak. Horrez gain, hainbat lagun taldek ere parte hartu du.

# OYAL

Erdiko Kale, 48  
ARRASATE

## Likidazio osoa negozioa uzteagatik!

# %40

ko deskontua  
umeendako jantzi guztietan



**Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruko emakumeak ikasturte-ari bukaera emateko Europa aldean izan dira bidaian. Paris, Praga, Budapest eta Venecia ezagutu**

**dituzte astebeteko txangoan. Joandako 38 emakumek primeran pasa dutela esan digute eta berriro beste astetxo bat ere gustora joango lirakeela jakin dugu.**



**Iturbide egoitzan zaharren astea** antolatu zuten joan zen astean. Astelehenetik domekara arte era guztietako ekin-tzak ikus-entzuteko aukera izan zuten: dantzaldiak, musika emanaldiak, hitzaldiak denetarik arratsalde entretenigarria igarotzeko.



**Arrasateko rugby taldearen zilarrezko eztaiak** ospatzeko goi mailako partidua izan zen Atxabalpeko futbol zelaian. Euskadiko selekzioak Bordeleko Begles taldearen kontra neurtu zituen indarrak. Frantziarrek irabazi bazuten ere, talde biek primeran jokatu zutela esan behar. Partidua bukatuta rugbylariek dioten 3. zatia hasi zen. Lehenengo luntxa izan zuten Belunen eta ondoren afaria Txalaparta elkartearen. Jai giroa eta umore ona izan zen nagusi rugby-larien artean.



**Galtzagorri aisialdirako taldeak tonbola berezia** egin zuen 3. munduan dauden behartsu-entzat dirua lortzeko. Zapatu honetan jasotako 38.200 pezeta, Manos

Unidas taldekoei eman die-te. Dirua Brasilgo Corumba hirira zuzenduko dute bertako umeei laguntzeko. Ekin-tza polita benetan Galtzagorri taldekoena!

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta  
Serrano Doktorea**

HAURDUNALDLIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**  
Ramón M. Lili, 2 BERGARA  
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industriaidea 1-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792941

ARETXABALETA

**IZEN PROPIOAK**

● **Imanol Etxeberriak**

23 urteko arrasatearrak Athletic taldearekin egingo du aurrendenboraldia. Imanol Bilbao Atheticeko atezaina izan da 95-96 denboraldian.

**Zozketen zenbakiak**

Arrasateko zikloturistek eta Rugby taldeak ateratako errifren zenbaki sarituen berri izango duzue jarraian. Sarituak antolatzaileekin jarri beharko dira harremanetan.

- Arrasateko zikloturistek errifa batzuk atera zituzten dirua lortzeko. Errifren zozketa ATBko MondraSport saioan egin zen astelehenean. Zenbaki sarituak hauek dira: 1) 0126, 2) 0131, 3) 1.379, 4) 1.052, 5) 0108, 6) 0046, 7) 1.377 eta 8) 1.171.

- Rugby taldeak ateratako errifren zenbaki sarituak honako hauek izan dira. 1) 514, 2) 191, 3) 888, 4) 1.745, 5) 1.889, 6) 874 eta 7) 870.



San Juanetako umeen tanborrada zapatu honetan arratsaldeko 7etan izango da. Egun handi honetarako aste hauetan jo eta su entsaiatzen ibili da herriko hainbat neska-mutil. Makilak eskuan eta tanborrari eman bez azken ikutuak egin dituzte aste hone-

tan. Beraz dagoeneko dena gertu dago eta baita egongo diren karguak banatuta ere. Generala **Oxel Royo** izango da. Ikurriña **Maidier Agiriano**k eramango du. SUDceko bandara **Lydia Alonso**k eta Arrasatekoa **Amaia Carrillo**k.

**Santi Boisak** istripuan hil zen jokalaria omenaldi beroa jaso zuen zapatuan Zaldibarrren. Cerveceria Leintz taldeko taldekideek Zaldibarko konbinatuaren kontra neurtu zituzten indarrak. Konbinatuak 7 eta 4 irabazi bazuen ere, emaitza ez zen garrantzitsua izan, partiduak zertarako balio izan zuen baizik. Santiren senitartekoak eta lagunak hunkituta egon ziren omenaldian eta era berean pozik jende ugari elkartu zelako.



**Pavimentos AGR**

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak  
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak  
Lehioak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak  
Eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almagena:

Kale Txiki, 3 - behea  
Tfnoa: 77 11 20  
Faxa: 77 11 20  
ARRASATE



**LABORE ETXEA**

- Gurutze puntuak (Kit prestatuak)
- Petit-point eta Bolilloa
- DMC ariak (koloreen gama guztiak)
- Arizko tela, Panama

Kalebarria, 49 • OÑATI • Tfnoa: 78 04 84



XX

*Epelde*

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8  
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23



**PUB HAIZEA**



# ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.



106



306



Cabrio



806



## ZATOZ PEUGEOT GAMA BERRIA EZAGUTZERA!

205




406



605



Boxer



Zaldispe, 2  
ARRASATE

Tfnoa: 79 50 71 / 79 97 12

*Berría!*

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.

**EKOMOBIL**



**PEUGEOT**



# ARRASATEN, ZERBITZU OSOENA!



Mekanika, elektrizitatea...



Txapa, pintura.



Erakusketa eta salmenta.

Aire egokitua  
dohainik gama  
guztian eta  
beherapen  
bereziak!



LEHOIAREN ESKAINTZAK

*Auto berriak!*

*50 baino gehiago!*

*Diesel!*

*Gasolina!*

*100.000 pta.tik aurrera!*

*Km. 0!*

*Berria!*

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.

*EKOMOBIL*




PEUGEOT

# Edertze aretoak Gorputza puntuu punttuan

Itxaro Zubillaga

**Zimurrak, zelulitisa, aknea, pisu gehiegi... emakume askoren burukominak batez ere arropa kendu eta gorputza erakutsi behar denean. Horrelako arazo baten aurrean edertze aretoak, argaltzeko dietak eta gimnasioak izaten dira ohiko irtenbideak, baina ez da ahaztu behar toki horietan ere egun batetik bestera miraririk ez dutela egiten. Gorputza puntuan eta sasoiari izateko denbora, pazientzia eta borondatea behar da.**

**G**aur egun edertze aretoak gero eta pisu handiagoa dute. Urtean zehar era guztietako zerbitzuak eskaintzen dituzte: depilazioa, esku eta hankako zainketak, aurpegi eta gorputz tratamenduak, solariuma. Baina sasoiaren eta beharren arabera zerbitzuen eskaria handitu egiten da. Jendea udarako prestatzen hilabete batzuk lehenago hasten da. "Apirilean hasiz gero denbora dago tratamendu osoa egin eta emaitza onak lortzeko" dio Mai-



Aurpegia zaintzeko maskarilak egiten dituzte besteak beste.

**"Gorputza puntuan eta sasoiari izateko denbora, pazientzia eta borondatea behar da. Mirariak ezin dira eskatu"**

te estetizistak. Dena dela, azken momentuan presaka eta korrika edertze aretoetara zuzentzen denik ere bada-go. "Emakume asko azken unean etortzen da, denbora gutxitan, emaitza onak, tratamendu samurra eta merkea bilatu guran. Guk jakina, ez ditugu mirariak egiten eta tratamenduek denbora eta pazientzia behar dutela esaten diegu".

Galdetutako estetizistek diotenez estetika kontzeptua ez da ondo ulertzen. Emakumeak edo gizonak argi izan behar du norberaren gorputzak ezaugarri batzuk dituela eta garrantzitsuena horiek onartzea da ondoren gorputz hori hobetu edo edertu ahal izateko. Kontua ez da politagoa edo zatarragoa izatea, norbera bere gorputzarekin gustora egotea baizik. Hori jakina, zaila da edertasuna eta presentzia ona horrenbeste baloratzen den gizarte batean.

## ZER AURKITU DAITEKE EDERTZE ARETOETAN

Edertze aretoek denborarekin modernizatu, hobetu eta zerbitzuak ugartu dituzte. Lehen depilatu, esku eta hanketako zainketa egin edo aurpegia garbitzea ohikoa bazen ere, une honetan teknika horiek aurrerapauso handia emateaz gain, berriek hartu dute indarra.

Depilatzeko orduan esatebaterako, bi sistema aurki daitezke euren bariatatearekin: argizarien bidez egiten den depilazioa edo elektrikoa. Argizari bero edo hotza dago. Azken boladan hotza ari da indartzen odolaren zirkulazioa txarto duten pertsonentzat hobea delako. Beroarekin zainak dilatatu egiten dira eta arazo hori sufritzen dutenentzat



Hidromasaia bainerak erlajatzeko tratamendu aproposena.

kaltegarriagoa da. Elektri-  
koa ere modan dago eta  
gorputzeko ile guztiak ken-  
du daitezke. Gainera depila-  
zio horrekin beharrezko tra-  
tamendua jarraituz gero,  
horrenbeste buruhauste ematen  
dituzten ileak moteldu eta  
ia desagertzen dira.

Aurpegiari dagokionez  
tratamendu normalenak nutri-  
zioa, hidratazioa eta tonifi-  
kazioak badira ere, zimurrak  
kentzea izaten da emakume-  
en arduraren handiena. Hori lortzeko  
"lifting" izenez ezagutzen den  
tratamendua dago. Masaia batzuren  
bidez aurpegiko giharrak indartu  
egiten dira azalak bere malgu-  
tasuna har dezan. Hala ere,  
adituek esaten duten moduan  
kirofanotik pasa gabe zimur-  
rak kentzea oso zaila da. Hori  
dela eta, estetizistek duten  
baliobideekin itxura hobetu  
dezakete, azalari beste bizi-  
tasun bat emanez.

Gorputzaren tratamen-  
duetako eskaria ere garai  
honetan handitzen da. Hon-  
dartzara joateko zelulitisa  
kendu eta giharrak forman  
jartzeko balio izaten dute.

**"Estetikako  
tratamenduak  
egitea bezain  
garrantzitsua  
ondorengo  
zainketa da"**



**Gorputz  
tratamendu osoa  
egiteko, hau da,  
10 bat saio  
30.000 pezetatik  
gora behar da.  
Dena dela,  
tratamendu  
guztiak ez dira  
berdinak eta  
prezioetan  
barietate asko  
dago. Saio bat  
4.000 pezetatik  
7.000 pezetan  
egon daiteke.**

Masaia desberdinak, bendak,  
hidromasaia bainerak eta olio  
bereziekin hidroterapiak era-  
biltzen dira besteak beste gor-  
putzari behar duen aldaketa  
emateko. Aipatutakoaz gain,  
eguzkia hartu barik beltzaran  
jartzeko solariuma dago, gero  
eta sistema arrakastatsua gero  
gorputzari kolorea emateko.  
Solariumaren gainean adi-  
tuek diotenez neurritz hartzen  
bada ona izan daiteke gorputza  
prestatzeko. "Solariumean  
aurrez gorputza ohitzen bada  
eta kolore apur bat lortuz  
gero, hondartzan ez dago gora  
begira egoteko horrenbeste-  
ko gogo eta izaten diren erre-  
durak ekiditu daitezke. Zen-  
tzu horretan beraz, komeni-  
garria da beltzaran eta gor-  
putza ondo hidratatuta eduki  
nahi bada". Azkenaldian  
ezpainetan, bekainetan eta  
betuletan egiten den makilaia  
iraunkorra asko hedatu da,  
tatuaien bidez ezpainak han-  
ditu, bekainak moldatu eta  
sendotzeko erabiltzen da.

**TRATAMENDUA EGIN  
ONDOREN ZER?**

Hasieran gorputza zain-

duta eta polita edukitzeko  
hainbat modu aipatu dugu  
baina tratamendua bukatzen  
denean zer gertatzen da gure  
gorputzarekin? Estetizisten  
berbetan tratamendua egitea  
bezain garrantzitsua ondoren  
mantentzea da. Jendea gus-  
tora irteten da edertze areto-  
etatik baina gona motza, bai-  
nu jantzia eta kamisetak  
armairuan sartzen direnean  
ahaztu egiten dira egin duten  
ahaleginak jarraipen bat behar  
duela. Jarraipen horrek ez du  
zertan zorrotza izan behar.  
Especialistek agindutakoa  
bete eta jateko orduan gehie-  
gikeriak ekiditzea nahikoa  
litzateke gorputza gustora  
mantendu eta berriro kendu-  
tako kiloak ez hartzeko. Per-  
tsona bakoitzaren kontrola  
ondo eraman eta behar den tra-  
tamendua ezartzeko esteti-  
zistek mediku zerbitzuak iza-  
ten dituzte.

**GIZONAK INGURATZEN  
DIRA HORRELAKO  
ZENTRUETARA**

Gizon gutxi joaten da gor-  
putza prestatzeko dauden  
edertze aretoetara baina bakar  
batzuk bai. Solariumera, aur-  
pegiko tratamenduak egiteko  
edo depilatatzeko, azken hone-  
tara batez ere kirolariak. Nola-  
nahi ere gizonak ez joateak  
ez du esan nahi euren dako ez  
direnik. Hala ere, oraindik  
orain, ez dago ondo ikusita  
gizon bat horrelako zentru  
baten ikustea eta andrakerie-  
tan dabilen etiketa jartzeko  
zaio. Etiketa okerra gizona-  
ren gorputzak emakumeare-  
na beste arreta behar duela  
jakinda.

Edertze aretoetan, mira-  
riak egiten ez badira ere,  
gorputzari itxura ederragoa  
emateko balio dezakete.  
Dena dela, ezin gara itxutu  
eta ezin da pentsatu horre-  
lako tokietatik beste gorputz  
edo aurpegi batekin irtengo  
garenik. Gure ezaugarriak  
hobetu daitezke baina mira-  
riak ez.

# Zepaesstandon 95-96 denboraldiko txapeliduna



**O**rdubete lehenago Izenbakuak eta Joixon Bertan taldeen artean erabaki ziren 3. eta 4. postuak. Izenbakuak kantxan hobeto kokatuz eta talde sendoagoa zela erakutsiz 5 eta 1 irabazi zion Joixon Bertani. Izenbakuak taldean bi gol Miren Garciak sartu zituen, beste bat Lorena Remediosek eta azkena Ainhoa Kortabarriak. Aurkarien gol bakarra Saioak sartu zuen.



**Z**aldibarren jokatu zen nesken futbito txapelketako finala. Eguerdiko 12etan Zepaesstandon eta Shaktale taldeak izan ziren nor baino nor. Neurketa parekatua izan arren, norbaitek irabazi behar eta Zepaesstandon nagusitu zen 3 eta 0. Golegileak Izaskun Aranbarri, Arantzazu Errasti eta Josune Garai izan ziren.



## Sari ugari irabazleentzat

Zepaesstandon taldeak 95-96 txapelketa eskuratu du. Beraientzat garaikurra, txanpaina eta datorren denboraldirako ekipamendua. Bigarren tokian Shaktale geratu da, garaikurra eta txanpaina jaso zuten. Hirugarrenak Izenbakuak dira eta laugarrenak Joixon Bertan.

# Uribe auzoa Futbito Txapelketa

Uribe Auzoa txapelketa finala jokatu da zapatuan. Uglys Txinato eta Betraye taldeen artean erabakiko da aurtengo txapeliduna. Talde biek maila ona erakutsi dute txapelketan beraz, itxuraz partidu polita ikus daiteke Iturripeko kantxan zapatuan. Bestalde, esan behar da Antonio Tena Malpikas taldeko jokalariek tibia eta peronea hautsi zituela Driblingen kontra jokaturako partiduan. Antonioentzat bukatu da futbito txapelketa.

Sariei dagokienez, finaleko irabazleak garaikurra, txapela, txanpain kaxa eta 50.000 pta. jasoko ditu. Bigarrenak garaikurra, urdaiazpikoa, txanpaina eta 25.000 pta. Hirugarren sailkatuak garaikurra, txan-

paina eta urdaiazpikoa eta laugarrenak garaikurra eta txanpaina. Sari horiez gain, finaleko jokalariek nabarmenak beste opari bat izango du. Sariak partidua bukatu ondoren banatuko dira Iturripeko kiroldegian.

### Emaitzak

#### Final Laurdenak

Uglys Txinato 4 - Zutarri 3  
Dribling 4 - Malpikas 3  
Balon Rojo 2 - Racing Molotov 2  
Betraye 7 - Nuevo Taberna 5

#### Final erdiak

Racing Molotov 1 - Uglys Txinato 2  
Betraye 3 - Dribling 3

### Hurrengo partiduak

#### Ekainak 15 larunbata Iturripeko kiroldegian

3. eta 4. postuak  
16.00 Racing Molotov - Dribling

#### Finala

17.00 Uglys Txinato - Betraye

## LABURRAK

### San Juan Futbito txapelketa

San Juanetako lehenengo futbito txapelketa jokatu da ekainaren 22 eta 23an. Zaldibarko jokalariek bi talde osatu dute eta hauen aurkariak Euskadiko selekzioa eta Bergarako lagunak izango dira. Arrasaten antolatzen den era horretako lehen txapelketa izango den arren, antolatzaileak baikor daude.

Arrasateko jokalariek astelehenean, ekainak 17, bilera izango dute Monterronen arratsaldeko 7etan. Bileran txapelketako xehetasun guztiak eta arauak azalduko dira.



Udako kirolak egiteko aukera izango da uztailean.

# Udako kirolak egiteko aukera uztailean

Udako Kirol kanpaina jarri du abian AUKEAK. Ekainetik uztaileira ohikoak ez diren kirolak egin ahal izango dira Arrasaten. Horietan parte hartzeko lehenbailehen izena ematea komeni da, horrela taldeak osatu eta orduak banatu ahal izateko. Ikastaroak ekainaren 27an hasiko dira eta uztailearen 23an bukatu.

Eskalada ikastaroan 11 urtetik gorako edonork har dezake parte. 17 urte behar-rakoentzat prezioa 1.000 pezetakoa da eta 2.000 gaintzekoentzat. Asteazken zehar emango dira klaseak. Espeologia, mendizaletasuna, mendiko bizikleta ikastaroak larunbatetan emango dira eta 14 urte gorakoek har

dezakete parte. Prezioa 1.000 pezeta. Piraguismoa Urukuluko urtegiaren emango da eta prezioa 3.000 pezetakoa da. Goizeko 10etatik arratsaldeko 8ak arte emango dira klaseak. Ur-azpiko kirola eta tenisa praktikatzeko aukera ere izango da Musakolako kiroldegian. Ur-azpiko kirol ikastaroaren prezioa 500 pezeta 17 urte azpikoentzat eta 1.000 gorakoentzat. Tenisa berriz, 1.000 eta 2.000 pezeta. Larunbatetan Trial-sin ikastaroa emango da eta baita arku-zirkotiraketa ere. Aipatutako kirolez gain, Abenturakoak ere izango ditugu. Kanioi-jeitsiera, rafting eta Hidro Speed uztaileko asteazken eta larunbatetan emango dira 4.000

pezetaren truke. Ikastaro hauetan parte hartu edo informazio gehiago nahi izanez gero, Musakolako kiroldegira zuzendu.

Bestalde esan behar da ekintza gehienak bi txandatan banatuko direla. Erantzunkizun zibilaren aseguruia izango dute partaide guztiak. Izenematea egin ondoren ez da dirurik bueltatuko. Partaide kopuru minimoa beteko ez balitz bakarrik itzuliko litzateke dirua. AUKEAko bazkideek prezio guztietan beherapenak izango dute aurtengo karneta aurkeztuz. Izena emateko ekainaren 17 baino lehen. Bigarren txandarako ekainaren 30a baino lehen.

## Mondrako emakumeak berriro jokatzera

Mondrako emakumeek ligako lehen postua eskuratu ondoren, mailaz igoko zutela uste bazen ere, Madrildik futbol Federazioaren aginduz, beste neurketa batzuk jokatu beharko dituzte helburua errealitate bihurtzeko. Lehen partidua Ikesi taldearen kontra jokatu dute Atxabalpen zapatuan arratsaldeko 6etan. Bigarren neurketa hemendik hamabost egun barru jokatu da ekainaren 22an Zornotzan. Mondrako emakumeek Federazioak nahi duena betetzen bada, partidu guztiak irabazi beharko litzakete nazional mailara igotzeko. Gerta daiteke bestalde, nahiz eta partiduak jokatu talde biak igotzea, oraindik Madrildik ez da eta behin betiko erabakia hartu.

## 3x3 Saskibaloia txapelketa

San Juanetarako lehenengo 3x3 saskibaloia txapelketa antolatuta da. Neurketak ekainaren 22an eta 23an Iturripeko kantxan jokatu dira. Antolatzaileek bi talde osatu dute. Gaztetxoek 1.600 pta ordaindu beharko dute eta helduek 3.200 pta. Izenematea egiteko Euskadiko Kutxan sartu behar da dirua 3035 0202 7 1 202.0.00918.0 kontu korrontean. Azken eguna ekainaren 19an izango da.

**Marivi**  
LORADENDA

Alfonso X Jakintsua 5 • ARRASATE  
Grupo San Juanen  
Tfnoa. 79 15 59

**ARGI PLASTIC**

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

*Jose Luis Ormaetxea*


# Arrasateko lekuizenak jaso eta Euskaltzaindiak argitaratu

J. Luis Ormaetxea "Txipi"ren ikerketa lana aurkeztu da gaur eguerdiko 12.30etan udaletxean. J. Luis Ormaetxeak azken urteotan Arrasateko lekuizenak jaso ditu eta Euskaltzaindiak bere "Onomasticon Vasconiae" bildumaren barruan argitaratu du 450 orrialdeko lana. Jose Luis Ormaetxearen ikerketa lan honekin Euskaltzaindiak bere bildumaren 15. liburua osatu du.

## 1990ean hasitako ikerketa

Arrasateko Udalak 1990ean atera zuen beka batekin hasi zen Arrasateko lekuizenak jasotzen. Hamalau hilabeteko beka izan zen hura eta 92an ikerketa hori aurkeztu zuen. Denbora horretan jasotakoa aurkitzeko Arrasateko Udal Artxibategian oinarritu zen batipat, baina beste herri batzuetako artxibategietan ere arakatu zuen: "Gipuzkoako Foru Aldundiko artxiboan ere ibili nintzen. Oñatiko Gipuzkoako Protokoloen Artxibategi Historikoan eta baita Arrasateko Parrokiako artxibategian. Garibaian liburua, Koldo Mitxelenaren "Textos arcaicos vascos"... eta beste liburu asko ere begiratu nituen".

Udalaren bekako lana



amaitu ondoren, Euskaltzaindiak, Juan Carlos Guerraren artxibategian oinarrituta, bere lana osatzea edo jarraitzea eskatu zion. Juan Carlos Guerraren artxibategia Monterronen bertan mikrofilmaturik dagoenez, J. Luisek hasierako ikerketa sakontzeari ekin zion. Ahoz ere jaso hainbat lekuizen, 800 bat.

## Arrasate: lekuizen iturri aberatsa

Ikerketa amaitu eta gero, bada harritu duen gauza bat: "Arrasatek 31 km<sup>2</sup> baino ez ditu eta harrituta geratu naiz

horren espazio txikian dagoen lekuizen mordoarekin. Jakina, Aramaio, Oñati eta Eskoriatza bera Arrasate baino handiagoak dira, beraz, herri horietan askoz ere lekuizen gehiago egongo dira. Kontua da inguru hau, orografia aldetik, oso menditsua dela. Beraz, normala da horrenbeste lekuizen egotea. Gaztelako herri bateko lekuizen kopuruarekin konparatuz, aberatsak gara" dio Ormaetxeak.

Lekuizenak galdu egin diren galdetzean baietz dio J. Luisek: "Bideak egin direla-

ko edo garai bateko industriaren eraginagatik galdu dira. Bestalde ahoz jaso ditudan galdu ez diren seinale da".

## Gaztetandiko gogoia

J. Luis pozik dago bere lana argitaratua ikusi izanagatik, gainera, Arrasateko lekuizenei buruzko ikerketa egiteko gogoia oso gaztetandik ei zuen: "Aspalditik nuen Arrasateko lekuizenak jasotzeko kezka eta gogoia, duela 20 urtetik edo. Deuston Filologia Erromanikoko ikasketak amaitu nituenean, ikerketa txiki batzuk egin nituen baina seriozki ezer ez. Duela sei urte berriz, bekaren aukera atera zitzaidan eta ez nuen pasatzen uzterik nahi izan. Oso gustora ibili naiz lan hau egiten baina egia da denbora asko kendu didala". Gaur egun J. Luis Gasteizeko Euskal Filologia fakultateko irakaslea da, beraz, lekuizenak biltzek ekarri dion lana bere ohiko lanbidearekin batera egin behar izan du: "Asteburuetan artxiboetan murgiltzen nintzen eta uda partean base-rietara joan izan naiz base-rietarrek hitzegitera. Oraindik asko dago ikertzeko eta gustatuko litzaidake horretan jarraitzea, baina denbora asko behar da".

TELLERIA  
  
 AUTO-ESKOLA

Juan Carlos Guerra  
 enparantza  
 Tfnoa: 79 18 39  
 ARRASATE

Mitarte, 18  
 Tfnoa: 79 53 51  
 ARETXABAleta



## LABURRAK


Pintura  
erakusketa

Arrasateko Margo Taldeak erakusketa jarri du Harresi Aretoan, uztailaren 7ra arte.

Harresi Aretoan Kontxita Arana, L. J. Arrieta, Begoña Kortabarria, Felix Etxebarria, Begoña Falces, Gurutze Galbete, Maribel Hernandez, Blanca Martinez, Pepita Mendizabal, Xeli Mendizabal, L. M. Olivenza, Rakel Perez de Arenaza, Manolo Quevedo, Iñaki Riviere, Jokin Rodriguez, Montse Roldan, Marcelino Ruiz, Eneritz Tirados, Iosu Uribebarria eta Kontxita Zarraoa margolarien lanak ikus daitezke.

Haur Dantzarien  
Eguna

Txikitxu eta Lore Gazteak dantza taldeak antolatuta, Haur Dantzarien Eguna ospatuko da igandean Arrasaten. Goizeko 10.45etan Nafarroa Etorbidetik Herriko Plazaraino taldeek desfilea egingo dute. Eguerdian kaleetan zehar kalejirak eta dantzak. 5etan berriz, dantzari taldeen agurra egingo da Herriko Plazan.



Jose Ramon Soroiz aktoreak antzeztuko du obra.

Tanttaka antzerki taldea Amaian  
Jende aurrean umekeriatan

Bihar gaueko 10.30etan Tanttaka antzerki taldeak bere azken lana eskainiko du Amaia Antzokian: "Umekeriak".

Mireia Gabilondok eta Fernando Bernués-ek zuzendutako obran aktore bakar batek egiten du lan, Jose Ramon Soroizek. "Umekeriak" obra duela gutxi hil zen Raymond Cousse autore frantziarraren "Enfantilla-

ges" jatorrizko obraren itzulpena da. Obra osoa bakarrik bat da eta oinarri dramatiko askotan herrietako haurren artean ohikoak diren bihurrikeriez ziprztinduta dago. Inozotasuna, samurtasuna eta saminduraren artean, "haur" batek bere nekazal eremuko hainbat bizipen gogoratzen ditu: Harategia, Marzelo lagunaren arreba, maisua, nagusiagoen txilibi-

tuak edota Marzeloren heriotza dira gizatasunari buruzko hausnarketa barregarri eta batzutan anker honen helburuak. Honen guztiaren emaitza, iseka eta krudelkeriz betetako tonoa eta inozotasun garbi eta sumeena tartekatuz, umoreak gainezka egiten duen narrazioa da.

Sarrerak 800 ptatan salduko dira takilan. Gazte Txartelarekin 600ean.




NEKAZALTURISMOA



**UNZUETA**  
JATETXEA eta LOGELAK

- Egunero zabalik
- Lau gela bere bainuarekin
- 120 lagunendako jantokia (banketeak, jaunartzeak, ezkontzak, enpresa bilerak...)
- Espezialitatea: haragi eta arrain parriladak

Zabola, z/g • Tfnoa: (945) 44 50 95 • ARAMAIO (Araba)



intzinako Musakolako jubilatuen egoitza da gaurko argazkian agertzen dena. Egoitza zaharra Zerrajerako eskoletan zegoen kokatuta. Gaur egungo elkarte gastronomiko askotan bezala, gizonak bakarrik sar zitekeen elkartera, horregatik ez da emakumezkorik agertzen

argazkian. Egoera hori dela eta, ordurako ba ei zegoen asko kexatzen zen emakumezko bat, Filomena Etxebarria izenekoa, urte askotan lantegian lanean ibilitakoa. Berak esaten ei zuen: "lanerako balio badut elkartean egoteko ere balio behar dut ba!".

Gizonezko asko ager-

tzen da argazkian, baina hiru besterik ezin izan ditugu identifikatu, aurrez aurre erdiko mahaian daudenak. Ezkerrekoa **Jose Azkoaga** da, erdikoa **Santos Uriarte "Fati"** gaitzizenez ezagutzen zen gizon ospetsua, eta esku-makoa **Bixente Gonzalez "Txantxote"**.

**UDAKO**  
**Ikastaro**  
**Intentsiboak**

**96**

AKADEMIA

**BASTIDA**

INEM-48 HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 1.a  
Arrasate  
Tel.: 79 35 33\* - 79 32 16  
Fax: 79 06 28

**OINARRIZKO OFIMATIKA**  
(Windows, Word, Access, Power Point, Excel)

**PROGRAMAZIO INFORMATIKA**

**DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA**

**KONTABILITATEA**

**ZERGA GESTIOA PYMEetan**

**GIZA ERREKURTSOEN  
ADMINISTRAKETA**

**MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ**

**EUSKARA**

**INGENIERITZA TEKNIKOA**

**LAGUNTZAKO KLASEAK**

**ABUZTUAN  
ERE  
PRESTATZEN  
DA**



# TANTTAKA

## TEATRO Aren eskutik



**Amaia Antzokian**  
**Ekainak 15, larunbata**  
**Gaueko 10.30etan**

**Sarrerak: 800 pta.**  
**(Gazte-Txartelarekin: 600 pta)**



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# DRAGOI JANA '96

## SAN JUAN JAIK


Ekainaren 24ean  
Gaueko 8.30etatik 12etara  
Herriko Plazan

### Izugarrizko afaria: (8.30etatik 11etara zerbitzatuko da)

- Kilo erdiko dragoi-txuleta
- Piperrak
- Letxuga entsalada
- Ogia
- Gazta eta menbrilloa
- Kafea

### Taberna Zerbitzua

- Ardoa
- Sagardoa
- Garagardoa
- Dragoi Odola
- Patxarana
- Whisky-a
- Patxarra



### Afarirako txartelak salgai: (1.000 pta)

Erosteko azken eguna ekainaren 23a izango da

- AED
- AEK
- ORKATZ
- MENDI taberna
- ITURRIOTZ taberna

### Eta afaldu bitartean egundoko ikuskizuna

- Barriketalarien barriketak
- Abadiñoko txiskolarien umorea
- Txarangaren martxa
- Bertsolarien adarjotzeak
- Trikitilarien soinu eta larru hotsak
- Eta beste hainbat!

**AED · ORKATZ · AEK**

## Z E R N A H I A G O ?

## Carmen Uranga

### "Phildar" dendakoa

- **Udan saltzen da artilerik?** Gutxiago baina bai.
- **Zenbat urterekin ikasi zenuen puntua egiten?** Hamahirurekin. Bizilagun batek irakatsi zidan.
- **Zenbat jertse egin dituzu?** Ez dakit, pila bat. 50 baino gehiago bai.
- **Politena nori?** Aitari.
- **Egunero egiten duzu puntua?** Ez baina astean zehar behin baino gehiagotan.
- **Zein hari edo artile da garestiena?** Harian Perlea eta artilean bera.
- **Hondartzara joaten zara?** Bai, bainatzera. Oriora joaten naiz.
- **Galdu egin da puntua egiteko ohitura?** Gazteen artean bai.
- **Noiztik dago denda zabalik?** Orain dela 27 urtetik.
- **Bizitzako momentu pozgarriena?** Umeak jaio zirenean.
- **Gantxiloa egiten badakizu?** Bai.
- **Nola pasatzen duzu denbora dendan jenderik ez datorrenean?** Irakurri egiten dut. Orain Jose Antonio Azpiazuren "Mujeres Vascas: Sumisión y poder" liburua nabil irakurtzen.
- **Gaztetan ligatzen zenuen?** Ez.
- **Zenbat nobio izan zenuen?** Bakarra eta horrekin ezkondu nintzen.
- **Kolore bat?** Marroia.
- **Liburu bat?** Biografiak gustatzen zaizkit... Vallejo-Nájera adibidez.
- **Beroarekin egin daiteke puntua?** Gutxiago, eskuak izerditu egiten dira eta.
- **Zerk beldurtzen zaitu?** Iriztuak.
- **Bainujantzia edo bikini?** Bainujantzia.
- **San Juanetan gonbidaturik izaten duzu?** Orain ez.
- **Gozozalea zara?** Ez.
- **Kamisoia ala pijama?** Kamisoia.
- **Azkeneko gaupasa, noiz?** Ez dut sekula gaupasarik egin.



## LEHIAKETA

## Ageriko Pintura Lehiaketa

Arrasateko Udalak eta Famili eta Gizarte Hezketa-rako Zentruak antolatuta, igandean XV. Toki Ageriko Pintura Lehiaketa burutuko da Arrasaten.

Lehiaketa honetan edozein adineko margolariak parte hartu ahal izango dute. Margolariak goizeko 9etatik 11etara euren margoei zigilua jartzera hurbildu beharko dira Monterronera. Lanak arratsaldeko ordubiak baino lehen entregatu beharko dira leku berean. Margo lanak Arrasaten eta ageriko tokietan eginak izan beharko dute. Sari banaketa arratsaldeko 6.30etan egingo da.

Helduen mailan lehenengo saria 70.000 pta.koa izango da; 2.a 45.000koa eta 3.a 35.000koa. Arrasatekoak diren partaideen artean 3 sari banatuko dira: 30.000, 25.000 eta 20.000 pta.koak. Gazteen mailan lehenengo saria 12.000 pta.koa izango da eta 2.a 10.000koa. 8.000 ptako sari bat ere egongo da. Sari-keretara aurkeztutako lanekin erakusketa jarriko da Monterronen ekainaren 16tik 22ra.

**DEGABEHIBA  
SURADESA**



DEBA GARAIKO BEREONERATZEKO HIRIGINTZ BALTZUA  
SOCIEDAD URBANISTICA DE REHABILITACION DEL ALTO DEBA

**Etxeko berritze-lanen eta erosketen dirulaguntzen gestioa.**  
**Doaneko zerbitzua.**

Publikorako ordutegia: Astearte eta ostiraletan, 9etatik 13etara.


Arrasate Pasealekua, 5-behea (Mankomunitate barruan, San Viator parean).

• ESAERA •

*“Ez baztertu betiko lagun zaharra, berriak ez du harek adina balioko eta”*


BIBLIA

• JEROGLIFIKOA •



Ez du ezer esaten gipuzkoar honek...

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Nestor, informatika liburu egile. 6. Arsenikoa. 8. Trabatua. 10. Kristoren Ondorengo laburdura. 11. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea. 12. Ospe, ohore. 14. Ardi hitz elkartuetan. 16. Errepikatuz, distira. 17. Jakoben zortzigarren semea. 18. Ukondoekin kolpeak emanez. 20. Bai horixe! 21. Atsekabea adierazteko hasperena.

**Bertikalak** 1. Gakoa duena. 2. Atomoari dagokiona. 3. Eguzkiaren jainko egiptoarra. 4. (Ald.) Kai. 5. Aldapa. 6. Kanpo. 7. Erro. 9. Beharbada, agian. 13. Erosi aditzaren infinitiboa. 15. (Ald.) Ahuntzaren ar. 17. Erne. 19. Enekoren kontsonanteak.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Antzezle paregabea zara zer-bait egiten nahi ez duzunean.

**Taurus** Hainbeste edan eta jan, kutsatuta bukatzen duzu astebukaera.

**Gemini** Ileapaindegira joan behar-ko zenuke txima horiek konpontzera.

**Cancer** Ez duzu eskubiderik egiten ari zarena egiteko.

**Leo** Oraindik ez badakizu, ikasi fandangoa dantzatzen.

**Virgo** Benetako maitasuna zer den jakiteko aukera izango duzu.

**Libra** Harro zaude zeure nortasunaz? Jarraitu horrela.

**Scorpio** Zure jarrerarekin minduta uzten dituzu lagun guztiak.

**Sagitaris** Ez amore eman, laster lortuko duzu aberatsa izatea.

**Capricorn** Zenbakiak ikasteko erraztasuna duzu, baina ez izenak...

**Aquarius** Astelehenetan beldurgarri egoten zara.

**Piscis** Ez zaizu lagun zaharrak ahaztea komeni.

# TOUR PORRA MUNDIALA!

Mendiko bizikleta eder bat eskuratu nahi baduzu, ikusi ATB eta irakurri **ARRASATE PRESS!**

Datorren astean argitaratuko ditugu Tour Porra Mundialaren oinarriak.



## TELEBISTAREN TXOKOA




## Denboraldiko azken programak

**D**atorren astean ATBko programazioari amaiera emango zaio. Mondrasportek, Barrelekaixokak, Elkartean-ek eta Astebetek euren azken saioak eskai-

niko dituzte. Jakina, San Juanak aurrean ditugula eta, programazio berezia izango da ekainaren 23, 24 eta 25ean. Hortik aurrera ATBk albistegiak baino ez ditu emitituko.

## KOMIKIA



Zaguzar.

## CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

## SOLUZIOAK

Jeroglifikoak:  
Mutua da.

**Bertikalak:** 1. Gakodun, 2. Ato-  
miko, 3. Ra, 4. (Ald.) Asan, 5. Ike,  
6. Ar, 7. Sustai, 9. Akaso, 13. Eros,  
15. (Ald.) Reka, 17. Adl, 19. NK.  
**Horizontalak:** 1. Garai, 6. As, 8.  
doka, 20. Noski, 21. Al,  
14. Art, 16. Dir, 17. Aser, 18. Ukon-  
Ataskatu, 10. KO, 11. AFEK, 12. Omen.

## PROGRAMAZIOA



## 14 Ostirala

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
13.35etan  
Elkartean (Errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
9.30etan  
Astebete

## 17 Astelehena

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
13.35etan  
Astebete (Errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport. Azken  
programa

## 18 Asteartea

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
13.35etan  
Mondrasport (Errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Barrelekaixoka. Azken  
programa

## 19 Asteazkena

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
13.35etan  
Barrelekaixoka (Errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Zinea. "Rain Man"

## 20 Osteguna

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
13.35etan  
Zinea (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Elkartean. Gentil-Ola, San  
Isidro, Mietz-Erreka,  
Uribarri.

## 21 Ostirala

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
13.35etan  
Elkartean (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete

## Etxebizitzak

- **Oñatin etxebizitza eta garajea salgai**, sukaldea, bainugela, 3 logela, egongela... dena berriztua. Prezioa: 13.000.000. Tfnoa: 71 63 31.
- **Castejonon (Nafarroa) pisua salgai**. Tfnoa: (948) 81 40 15.
- **Torrevejan apartamentua alokatzen da**. Guztiz jantzita eta hondartzatik gertu. Tfnoa: 78 14 72.
- **Alokatutako pisu bat osatzeko jendea behar da**. Tfnoa: 79 86 06. Mikel.
- **Pisu bat alokatuko nuke**. Tfnoa: 79 84 40. Aitzol.
- **San Andresen etxebizitza salgai**. Tfnoa: 79 98 73.
- **Laredon apartamentua alokagai** San Juanetan. Tfnoa: 79 31 47.
- **Bungalowa alokagai Peñiscolan** uztaila eta irailean. Tfnoa: 77 05 88.
- **Garajea alokatuko nuke** Erguin-Larrea auzo inguruan. Tfnoa: 79 41 29.
- **Makatzanen etxebizitza salgai**. Jantzita, 3 logela, egongela, berogailua.... Tfnoa: 79 79 86.
- **Makatzanen etxebizitza salgai**. Oraintxe guztiz berriztuta. Berogailua, egurrezko lurra, PVC, 3 logela, ganbara, lorategia... Tfnoa: 79 07 64.
- **Etxebizitza salgai Arrasaten**. Tfnoa: 79 36 53.
- **Etxebizitza salgai Makatzanen**. Tfnoa: 79 61 15 (gauetz).
- **Pisu txiki bat alokagai Zarugalden**. 40.000 pta. Lo egiteko baina sukaldea erabilpenik gabe. Tfnoa: 79 67 65.
- **Pisua salgai Cordoba y Oro kalean** (San Andres). 3 logela, egongela, sukaldea, berogailua... Tfnoa: 79 67 65. Dei egin arratsaldeko 8etik aurrera.

## Lana

- **Informatikako 4. mailako ikaslea** OHO, EEE, MsDos, C eta Pascal-eko klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 34 58.
- **Andra euskalduna etxeko lanak** egin edo atariak garbitzeko gertu. Tfnoa: 79 39 42.
- **BUP 2. mailako** fisika eta kimikako klase partikularrak jasoko nituzke euskaraz. Tfnoa: 79 66 92.
- **Esperientziadun neska** goizez umeak, pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 31 44.
- **Ingeleseko klase partikularrak**. Talde txikiak. Esperientzia eta titulazioa. Tfnoa: 77 02 42.
- **Neska gaztea lan egiteko gertu** (sukaldea, etxe garbiketara...). Zuzendu Ferrerías kaleko 30, 2.
- **Emakumea etxeko lanak** egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 67 37 80. Gauetz dei egin.
- **Unzueta jatetxean** (Zabola) sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. Tfnoa: (945) 44 50 95.
- **Udan OHoko klase partikularrak** emango nituzke, euskaraz nahiz erdaraz baita umeak zaindu ere. Tfnoa: 77 13 77.
- **Uztailan eta abuztuan OHoko klase partikularrak** ematen dira. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 25 09. Ana.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 48 12.
- **OHoko klase partikularrak**. Tfnoa: 79 69 41.

## Denetarik

- **Belarritakoak galdu ditut** Kontzeziño kalean. Tfnoa: 79 75 47.

## Salerosketak

- **Kanpingerako karroa salgai**. Sei plazakoa eta egoera onean. Dei egin 20.30etatik aurrera 79 99 53ra.
- **Fagor markako mikrozeramikako plaka** berria salgai. Prezio egokia. Tfnoa: 79 95 79.
- **Komertziorako baliagarriak** diren kristalezko estanteriak salgai. Tfnoa: 79 65 31.
- **Eskulanak egiteko larrua salgai**. Tfnoa: 79 65 31.
- **Citroën AX, SS-AM autoa salgai**. Oso prezio ona eta urtebeteko garantiarekin. Tfnoa: 79 18 18 edo (908) 57 93 86.
- **Yamaha XS-400 motoa salgai**. NA-M. Egoera ona ITV orain dela gutxi gaintuta. 150.000 pta. Tfnoa: 79 18 53. Jabi.
- **Aguerre markako pianoa salgai**. 80 urte ditu. Lan orduetan. Tfnoa: 76 15 58. Juan.
- **Kanpinerako jantzita dagoen** Nissan Vanettea salgai. Tfnoa: 79 03 93.
- **Kawasaki motoa salgai. ZZR-600**. Ondo zainduta. 550.000 pta. Kaskoa opari. Tfnoa: (908) 57 64 83. Josean.
- **Kanpineko karro-denda alemana salgai**. Tfnoa: 71 43 86.
- **Kawasaki 500 GPZ motoa salgai**. SS-AB. Tfnoa: 76 47 74. Joxe Migel.
- **Zaldiak saltzen dira**. Tfnoa: 79 61 15. Gauetz.
- **TA 2212 fotokopiagailua salgai**. Oso gutxi erabilia. 105.000 pta. Tfnoa: 79 08 45.
- **ECR 375 kutxa erregistradorea salgi**. 65.000 pta. Tfnoa: 70 08 45.
- **Premier bateria osoa salgai**. Signia modeloa. Oso egoera onean. Urte térdi dauka eta oso onda zainduta dago. Tfnoa: 14 79 79.

# Aste Gazte

### Auzolandegiak

• Aranzadi Zientzia Elkartek antolatutako auzolandegietan parte hartzeko izenematea zabalik dago, uztailaren 5era arte. Adina: 15-25 urte (adin talde ezberdinetan antolatuta), leku ezberdinetan (Aia, Ataun, Elduaian, Lizartza...) uztaila eta abuztuan. 15 eguneko txandatan. Kuota: 10.000 Pta.

### Hizkuntz egonaldiak

• Ingelesa ikasteko oporrak Segurako aterpean, Diputazioak antolatuta. 18-29 urte tartekoei zuzenduta. Abuztuak 1-15. Kuota: 45.000 Pta. Izenematea: ekainaren 21era arte.

### Bekak

• "Saiolanek" enpresa proiektu bat garatzeko beka deitu ditu. Arlo hauetan graduatuta daudenei zuzenduak: injinerutza (mekanika, elektronikoa...) zientzietan (fisika, kimika, informatika) ekonomia eta enpresa zientzietan. Epea: uztailak 7.

### Lana

• Hernaniko Udalak itzultzaile plaza bat betetzeko deialdia egin du. Titulazioa: erdi mailakoa. Epea: ekainak 23.  
• Eusko Legebiltzarrak mantentimenduko ofizial lanpostu bat betetzeko deia egin du. Titulazioa:

eskola ziurtagiria edo baliokidea. Epea: ekainak 18.

• Irungo Udalak lanpostu hauek kaleratu ditu: a) Bibolin irakasle bat, b) kitarrako bost irakasle, eta c) klarineten irakaslea. Epea: ekainak 29.

### Ikastaroak

"Arrasate-96 Udako Kirol Kanpaina": eskalada, espeleologia, mendi bizikleta, ur azpiko kirolak, arku tiraketa, txangoak... Ikasle eta langabetuek 1.000 pta-1.500 pta.ko deskontua izango dute piraguisimo eta txangoetan.

### Lehiaketak

• "Ernestina de Champouerein" VII. poesia saria. Gai librea: euskaraz zein gazteleraz. Epea: irailak 20.

**"Zure nerabezaroa gogoan al duzu? Itzuliko al zinateke? Itzuliko al zinateke? Ez nintzateke itzuliko, ez nintzateke itzuliko".**  
Sándor Weóres

**Informazio gehiago:**  
**GAZTE**  
**ZERBITZUA**  
**Tfnoa: 77 00 65**

# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

**LOGELETAN** espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.

Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak, garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean, merkeenak.

**BENETAN  
HARRIGARRIA!**

**LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!**



## omu keramikak

### ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

- Keramikazko zoru eta estalketak.
- Baldosa, terrazo eta marmola.
- Idorrak, zementuak eta kolak.
- Hormigoizko aurrefabrikatuak.
- Isolagarri eta gehigarriak.
- Sukaldeak eta su-bajuak.
- Teilatuentzat leihoak.
- Ordezkoak.

**Zure biltegia Deba Garaian.**


ERAKUSKETA: Otalora, 1 behea • Tfnoa: 79 07 20

BILTEGIA ETA BULEGOAK: Meatzerreka, 6 • Tfno eta faxa: 79 14 28

Galaxy

# Olano eta Mugarrirekin edonora!

*Abraham Olanok  
Galaxy autoa  
aukeratu du.  
Zorionak!*



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tfnoa: 79 07 44-54 • Faxa: 79 62 54

**MUGARRI**